

Bizitzan **bidaide**

MIGRATZAILEENTZAKO JESUITEN ZERBITZUAREN
(**SJM**) HARRERA KOMUNITARIOAREN EREDUA

Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren (SJM) harrera komunitarioaren eredia elkarrekin eraikitzen



Edukien aurkibidea

01. Sarrera	9	06. Harreran eta laguntza komunitarioan esku hartzeko prozesua eta metodologia	26
02. Bizitzan bidaide	14	6.1. Lehenengo fasea: harrera	27
03. Harrera komunitarioaren ereduaren oinarri diren printzipioak	17	Atariko zenbait kontu	27
04. Harrera komunitarioaren ereduari zentzua ematen dioten kontzeptuak	20	Eskaera ulertzea	29
05. Helburuak	24	6.2. Bigarren fasea: balorazioa eta orientazioa	31
5.1. Maila indibidualean	25	6.3. Hirugarren fasea: esku hartzeko proposamena	32
5.2. Maila komunitarioan	25	6.4. Laugarren fasea: esku hartzeko prozesua	33
		6.5. Bosgarren fasea: ebaluazioa eta prozesua ixtea	34

07. Harrera-komunitatea, abegi onaren ardatz	35	08. Sareko lana harrera komunitariorako	44
7.1. Lehenengo fasea: harrera	40	09. Hausnarketa partekatua erakunde-esparruari buruz	48
Atariko zenbait kontu	40	10. Bibliografia	51
Eskaera ulertzea	41		
7.2. Bigarren fasea: balorazioa eta orientazioa	42		
7.3. Hirugarren fasea: esku hartzeko proposamena	42		
7.4. Laugarren fasea: esku hartzeko prozesua	43		
7.5. Bosgarren fasea: ebaluazioa eta prozesua ixtea	43		

Dokumentu hau sektore arteko ikerketa-ekintza parte-hartzaileko proiektu baten esparruan egin da, Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren (SJM) eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren barruan. Amaia Mosteiro, Cinta Guinot, Ane Ferran eta Felix Arrieta Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko ikertzaileek egin dute, parte hartu duten guztiek partekatutako ekarpenak, ideiak, hausnarketak eta eztabaidak sistematizatuta eta baterako lan-espazioetan adostuta.



01

Sarrera

01

Sarrera

Bizitzan bidaide: harrera komunitarioaren eredua dokumentua honako erakunde hauetako pertsonak egindako elkarlanaren emaitza da: Ignacio Ellacuría Gizarte Fundazioa, Loiolaetxea Elkartea, Aita Lasa Zentroa, Claver Elkartea, Migra Studium, San Juan del Castillo-Pueblos Unidos Fundazioa, Red Íncola Fundazioa eta SJM Valencia, Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Gizarte Laneko taldearekin batera. Prozesu horren helburua izan da Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzua (SJM) osatzen duten erakundeen harrera komunitarioaren eredua identifikatzea.

SJMren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren estrategikoaren eta sektore artekoaren barruan egin da lan hau. Lankidetzaren horren helburua da, ikerketa hau haren atal bat izanik, bi erakunde horien lana balioestea, esku hartzeko prozesuen eta ikerketaren artean sinergiak sortuz.

SJMren harrera komunitarioaren ereduaren espezifikotasuna azaltzen

du dokumentuak. Eredu horrek barne hartzen ditu lagundutako pertsonak, talde profesionalak eta harrera-komunitateak. Eredua kokatzeko eta hura osatzen duten elementuak ulertzeko, beharrezkoa da lehen hurbilketa orokorra egitea, dokumentuaren 2. puntuan dagoena.


Ereduak "triangelu bertutetsu" bat du ardatz, elementu hauez osatua: bizileku berriko errealitate berriari finkatzeko prozesuan dauden pertsonak eta familiak, talde profesionala eta harrera-komunitatea. Hiru erpin horien artean sortzen den espazioa etenik gabeko elkarreraginaren bidez ehotzen da, norabide guztietan, sarea osatuz, eta sare horren gainean ezartzen da esku-hartzea. Dokumentuaren 6. eta 7. puntuetan azaldu dugu "Triangelu bertutetsu" hori zertan datzan. Bereizi egiten dira banakako/familiako esku-hartzearen eta harrera-komunitatearen helburuak eta hiru eragile horien artean sortzen diren sinergiak eta elkarreraginak, eta harrera egin eta laguntzeko eta gizarte-eraldaketarako eredu propioa eratzen da.

Esku-hartze hori ez da testuinguru bakartuan gertatzen. Printzipioetan eta balioetan oinarritutako erakundeen esparruan gertatzen da, helburu jakin batzuekin. Horregatik, SJMren dokumentazioan jada azaldutako planteamenduak jasotzen ditu dokumentuak, hark ematen baitio zentzua ekintzari. Harrera-errealitate horren elementu nagusiak testuinguruko elementuek osatzen dituzte: printzipioak, kontzeptuak eta helburuak. Gai horiek dokumentuaren 3., 4. eta 5. ataletan daude, ekintzaren sarrera eta esparru gisa.

Azkenik, ekintza bera ez da ulertzen gertatzen den erakunde-esparruan jasotzen ez bada, eta une oro elkarreragiten den sarearekin lotzen ez bada. Azkenik, "triangelu bertutetsutik" hurbilen dauden elementuak sareko lanari eta erakunde-esparruari dagozkionak dira. Dokumentuaren 8. eta 9. puntuetan azaldu dira horiek. Bereizita jaso nahi izan ditugu haien inguruko eztabaida ere bereizteko.


1. Grafikoa

Ereduaren erdiko triangelua osatzen duten agenteak.




Iturria: geuk egina

2. Grafikoa Ereduaren ekosistema globala.



Iturria: geuk egina



02

**Bizitzan
bidaide**

02

Bizitzan bidaide

SJM osatzen duten erakundeen harrera komunitarioaren ereduak pertsonak eta familiak, talde profesionala eta harrera-komunitatea barne hartzen ditu. Hiru eragile horien artean sortzen diren elkarreraginek errealitate berria eratzen dute. Gizarte abegikorrak eta abegi oneko kulturak gutxienez behar dituzten elementuak biltzen dituen espazioa da errealitate berri hori, elkarreraginen aurretik existitzen ez zena.

Eratzen ari den espazio berri horrek, hartutako pertsonak egiten dituzten prozesuei erantzuten die alde batetik, eta komunitate harreragileek egiten dituztenei bestetik, erakundeetako teknikarien bitartekaritzaren emaitza gisa. Prozesu horiek bat datoz gizabanakoek eta gizarteek parte-hartzearen eta herritarren artikulazioaren inguruan egiten dituzten prozesuekin, eta elkarreragin horiek alde batera utzita, prozesu horiek ez dira beti ez paraleloak ez ekitatiboak izaten.

Elkarrekintza hasteko, bi mugimendu egiten dituzte helmugan harrera

kudeatzeaz arduratzen diren erakundeek. Alde batetik, beren profesionalen bitartez, harremanetan jartzen dira pertsona eta familia iritsi berriekin. Lehen mugimendu horrekin batera, normalean, profesionalak harremanetan jartzen dira hartutako pertsonak edo familiak kokatuko diren inguruneko pertsonekin eta taldeekin. Pertsonak hartzea eta harrera-guneak sortzea izango litzateke elkarreragin bikoitz horren helburua, eta harreraren ernamuina da, abegi onaren baliabideak aktibatuz. Abegi on hori kode kulturalen bidez neurtzen da, eta kode horiek trukatzu ezagutarazten eta aberasten da.


Eguneroko komunitate-eremuen dinamizazioa bultzatzen eta eragiten du ernamuin horrek, haiek baitira benetako gizarteratze-dinamikak sortzen dituztenak, pertsona horiek beren eskubideak baliatzeko eta inplikaturako pertsona guztiek bizikidetzaren eraikuntzan parte hartzeko aukera izan dezaten. Hortik aurrera, herritarrek berek sortzen dituzte harrera eta gizarteratzea,

harreman horizontalen bidez, loturak sortu eta indartuta.

Horizontala izan nahi duen lotura horretatik sortzen diren elkarreraginen sareak babes sozial eta emozionaleko sare gero eta trinkoagoa eraikitzen du. Sare horrek aukera ematen du auzoetara, eskoletara, erlijio-komunitateetara, kirol-taldeetara, kultura-elkarteetara, enpresetara... iristeko eta aniztasuna bultzatzeko, eta, haren bidez, herritar kontzienteagoak, konprometituagoak eta abegikorragoak izateko.

Norbanakoen eskubide indibidualak aintzat hartu behar dira maila guztietan. Demokraziek bermatzen dituzte eskubide horiek, eta herritartasuna eta haren gauzatzea arautu behar dituzte. Horiek, eskuarki, hainbesteko bermeekin babesten dituzte eskubide indibidualak, non murriztu egiten duten aurreikusitako ereduak gainditzen dituzten elkarreraginen garapena. Nekez sortzen dituzte harrera eta abegi oneko dinamikak. Herritarren plusa dira harrera eta abegi ona. Hiru eragile horien arteko elkarreraginak harrera eta abegi oneko kultura sortzea dakar,

legerietan aurreikusitako gizarte-ereduak gainditzen dituenak.



03

**Harrera
komunitarioaren
ereduaren** oinarri
diren printzipioak

03

Harrera komunitarioaren ereduaren oinarri diren printzipioak

Printzipioak ereduari norabidea eta zentzua ematen dioten funtsezko elementuak dira. SJMren esparru-dokumentuan (SJM, 2021) planteatutako gogoetetatik hartu dira "Azkenak eta aintzat hartu gabeak", "anaitasuna" eta "justizia" printzipioak. Laugarren printzipio bat ere gehitu dugu, pertsonalizazioarena, prozesu honetan garrantzitsutzat jotzen baita.

Azkenak eta aintzat hartu gabeak

Elizaren erakundeok, harrera-proiektuak planteatzerakoan, gizarteak baztertzen dituen pertsonengan eta aintzat hartzen ez diren errealitateetan pentsatu behar dugu lehenik. Harrera "azkenetatik" hasita egiteak esku-hartze prozesu luze eta indibidualizatuarekin konprometitzea eskatzen du. Azken batean, gure harrerak pertsona jarri behar du erdigunean, eta haren duintasunaren eta giza balioaren alde egin behar du. Hala, gure ekintza izen-abizenekin gorpuzten du printzipio honek.

Anaitasuna

Gizateria familia bat da. Ikuspegi horretatik, haren parte dira pertsona migratuak eta errefuxiatuak. Frantzisko aita santuak (2020) dei egiten du anaitasuna bizitzeko sarea eratzeko, gerratik, pobreziatik eta gosetik ihes egin eta beren herrialdeetatik urrun babes bila dabiltzanei harrera eginez eta lagunduz. Anaitasunaren dei horretan ez daude haiek alde batetik eta gu bestetik. Gure ustez, beren herrialdeak utzi behar izan dituzten pertsona horiek ez dira, besterik gabe, elkartasun-ekintza egiten diegun pertsona ezezagunak; aitzitik, gure familiako kide dira, eta haiekin partekatu behar dugu daukaguna. Hala, Jainkoa bera da gure anai-arreben bidez atea jotzen diguna, "Norbaitek esaten badu «Jainkoa maite dut», eta anaia gorrotatzen badu, gezurti hutsa da; izan ere, bere anaia (ikusten duena), maite ez duenak ezin du Jainkoa maitatu (ikusten ez duena)" (1 Jn 4,20).

Justizia


Justizia-ekintzat hartzen dugu harrera, eta hori da Ebanjelioaren zerbitzura dugun egitekoa. Hala, karitatearen eta justiziaren arteko harremana etengabea da Elizaren irakaskuntzan; izan ere, behartsuei ezinbesteko gauzak ematen zaizkienean, ez dizkiegu geure gauzetatik ematen, beraiena dena itzuli baizik. Era berean, Pedro Arrupe sjren legatutik abiatuta, fedea-justizia binomioak erakusten du ez dagoela gizartean ekintzarik, fedea justiziarekin konprometitzen ez bada. Beraz, karitate-ekintza bete baino gehiago, justiziazko betebeharra da egiten duguna, pertsonen beren eskubideak baliatzen lagunduz. Horixe bera gogorarazi zien Joan Paulo II.a Aita Santuak Migrazioetarako Nazioarteko Batzorde Katolikoaren Kontseiluko kideei, beren egitekoa zein zen azalduz: "Horregatik, gaur gonbidatu nahi zaituztet zuen egitekoaz kontzientzia handiagoa hartzera: Kristo ikustea anai-arreba behartsu guztietan, etorkin ororen, lekualdatutako pertsona ororen eta errefuxiatu ororen duintasuna aldarrikatu eta defendatzea. Hala,

emandako laguntza ez da gure bihotzaren ontasunaren limosnatzat hartuko, zor zaien justizia-ekintzat baizik» (Joan Paulo II.a Aita Santua SJMn, 2021).

Pertsonalizazioa

Pertsona bakoitzarengan modu bakarrean pentsatzera bultzatzen gaituen printzipioa da pertsonalizazioa, pertsona bakoitzaren duintasunari balio emanaz eta laguntza-prozesuetan parte har dezan sustatuz.

Pertsonak erdigunean jartzen dituzten egiteko eta jarduteko moduekin loturik dago pertsonalizazioa, pertsona horiek dituzten indarguneak eta lehentasunak aintzat hartuta, nola laguntzea nahi duten jakiteko; pertsona edo familia bakoitzaren egoera partikularrean egokitu behar da eskaintzen den laguntza, eta, era berean, lagundu egin behar da pertsonen aukera desberdinen artean hauta dezaten eta beren bizitzetan gertatzen denaren kontrola izan dezaten, haien autodeterminazioa eta alternatibak hautatzeko gaitasuna sustatuz (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023).



04

**Harrera
komunitarioaren
ereduari** zentzua ematen
dieten kontzeptuak

04

Harrera komunitarioaren ereduari zentzua ematen dioten kontzeptuak

Begirada humanista

Begirada humanistak esan nahi du erdigunean jartzea pertsona eta haren duintasuna. Hala, planteatzen den edozein esku-hartze pertsonaren premien ikuspegi holistikotik egingo da, hiru alderditatik, hauxe da, alderdi erlazional, emozional eta espiritualetik.

Harrera, oinarri gisa

"Gaur egungo egoera kontuan hartuta, harrera egiteak esan nahi du, batez ere, etorkinak eta errefuxiatuak helmugako herrialdeetan modu seguru eta legalean sartzeko aukerak zabaltzea... duintasunarekiko eta oinarrizko eskubideekiko errespetua bermatzea... Berriro ere azpimarratu nahi dut garrantzitsua dela bizileku egokia eta itxurazkoa eskaintzea... Harrera-programek topaketa pertsonala erraztu behar dute, zerbitzuen kalitate hobea ahalbidetu eta arrakasta izateko berme handiagoak eskaini" (Frantzisko Aita Santua SJM 2021ean). Horren harira, interseksionalitatearen ikuspegitik erantzun beharko genuke, hau da,

pertsona migratuei eta errefuxiatuei eragiten dieten egoeren eta faktoreen aniztasuna eta konplexutasuna aintzat hartuko dituen Giza Eskubideen ikuspegitik. Laguntzaren, loturaren eta entzute aktiboaren bidez eraikitzen dira harreraren gakoak.

Hartzea da pertsonarengana edo familiarengana joatea, harrera egiteko. Balioa eman behar zaio giza topaketa eta erlazioa zaintzeari, pertsonekin egin behar dugu topo, eta ez bakarrik haien arazoekin, begietara begiratu behar zaie, eskua eman, esertzera gonbidatu, hitz egiteko aukera sortu, entzun...

Harrera egitea espazio segurua sortzea da, pertsona edo familia erdigunean jartzea.

Bidaide izatea, metodologia gisa

Laguntzeko harreman-prozesu gisa ulertzen dugu bidaide izatea, eta laguntzen diegun pertsonen autonomia, ahalduntzea eta nork bere burua gauzatzea lortu nahi du metodologia horrek.

Bidaide izateak lotura sortzen du. Kontua ez da bakarrik hor egotea, autonomia sortzea, gaitzea eta ahalduntzea baizik. Jakintza berriak sortzea, esku-hartzeari ekarpenak egin ahal izateko; guztiok elkarrekin sortzea da, elkarrekin sortzea eta elkarrekin eraikitzea.

Harreman proaktiboa eta konfiantzazkoa bultzatuko dugu beti, eta laguntza-prozesu horretan elkarrekin diseinatuko dugu banako ibilbidea, beharrek bat datozen helburuak betetzeko. Hobetzeko edo kalteak murrizteko aukera eman behar du laguntzak. Pertsonaren ahalmenak eta gaitasunak garatzea izan behar du ardatz, egoera ezagutu eta berrinterpretatu, aldatzeko xedean betiere. Bidaide izateak berekin dakar harremanaren muinean jartzea pertsonak bere proiektua eraikitzean duen protagonismoa. (Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Nafarroako Sarea, 2016).

Komunitatea, ardatz egituratzaile gisa

Harrera-proposamen edo -ekintza orok inplikazio komunitarioa izan beharko luke abiapuntu. Gure komunitateek, errealitatearen maila guztietan, anaiarteko mundua bilatu beharko lukete

etengabe, eta horregatik da erabakigarria pertsona etorri berriari egiten zaion arreta.

Gure gizarte-ekintzaren ezaugarri bereizgarria da alderdi komunitarioa, eta abegi onaren kultura eraikitzea du helburu, aniztasunari erreparatuz bere ikuspegi zabalenetik, eta pertsona guztiak errespetatzeko eta aintzat hartzeko oinarriko printzipioa beteta betiere. Hala, komunitatea errotuta dagoen lurraldetik egiten da harrera-ekintza, eta, pertsona migratuekin eta errefuxiatuekin batera, ekintza eraldatzailea ahalbidetzen du, lotutako pertsona guztiei eragiten diena.

Komunitateak abegi ona ematen du: abegi ona, doakotasuna, elkarrekikotasuna eta laguntza sororo-anaikorra oinarri dituena. Profesionalen presentziaren osagarria da, horizontalagoa, profesionalen lana osatzen duena, eta, horri esker, bizipena familiarragoa da, etxeagoa, eta, agian, beroagoa. Harreman horizontalak, zaintzakoak, bultzatzen ditu, eta horrek komunitate-integrazioa eta guztion ongia sustatzen ditu. (Ferran, 2016).

Talde-lana, motor gisa

Helburu bera duten pertsonen osatzen dute lantaldea. Horretarako, funtsezko elementutzat hartzen dira helburuak lortzarekin identifikatzea, rolak onartzea, komunikazio argia eta arina, hainbat osagai afektibo inplikatzeko, bat-bateko lankidetzak eta elkarri laguntzea, kohesioa, kidetasuna eta identifikazioa, talde-kontzientzia eta pertsonen arteko harreman onak. (Aguilar eta Vargas, 2010)

Beraz, harrera komunitarioaren eredu honetan, balioa ematen zaie talde-lanak duen indarrari, harremanen aberastasunari, elkartasunak erakusten dituen kohesioari eta lankidetzalari eta kideek sumatzen duten kide izatearen zentzuari. Zenbat eta kohesio handiagoa egon, orduan eta aukera handiagoak daude taldeak balioak, jarduerak eta egiteko modu komunak partekatzeke.


Taldeak zaintzea, eguneroko lan gisa

Eguneroko lan gisa hartu behar dira profesionalak eta taldeak zaintzeko eta indartzeko lanak, bai eta lantaldeak indartzen lagunduko duten estrategiak identifikatzea, diseinatzea, inplementatzea eta ebaluatzea ere.

Horregatik, zaintza ez da erantzukizun indibidual bat bakarrik, taldeen zaintzak ekintza kolektibo bati buruz hitz egiten baitu.

Zaintzak, batzuetan, alderdi terapeutikoa du, eta alderdi psikologiko-emozionala zaindu egin behar da, hazkundera eta jarduera egokia bultzatzeko.

Gainbegiratzeak, modalitate guztietan, talde profesionalak zaintzeko balio du, ongizatea eta gogobetetze profesionala, oztopoak aurkitzea, garapen profesionala eta ekipoen zaintza errazteko tresna gisa. Horregatik da garrantzitsua pertsona kaltetuei laguntzen eta pertsona horiek zaintzen dituzten profesionalak eta boluntarioak zaintzea, errukiak eragindako nekearen eragina arintzeko.



05

Helburuak

05


Helburuak

5.1. Maila indibidualean

- 1.** Gizartetik baztertuak eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsona eta familia iritsi berriak hartzea, haien autonomia eta aintzatespen soziala, eskubideak eskuratzea eta komunitatearekiko lotura sustatuz.
- 2.** Berreraikitze pertsonaleko eta bizi-proiektuko prozesuak bultzatzea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbidean eta eskubideak eskuratzeko ibilbidean lagunduta, eta taldekako eta komunitateko laguntza-sareak zabaldua.
- 3.** Komunitatea sortzea bidelagun izanda, loturak sortuta eta sare sozialak zabaldua, bizikidetzako eta harrerako espazioetatik abiatuta, eta kulturarteko ikuspegia aintzat hartuta betiere.

5.2. Maila komunitarioan

- 1.** Abegi onaren kultura sustatzea, herritarrak, oro har, sentsibilizatuz eta proiektuko boluntarioei lagunduz (familia eta komunitate hartzaileak, proiektuaren prozesuetan eta jardueretan parte hartzen duten boluntarioak).
- 2.** Herritartasun inklusiboa eraikitzen laguntzea, gizarte-kohesioa sustatuz, elkartzeko eta parte hartzeko guneak sortuta gizarteko eragileak harremanetan jartzeko, eta bizikidetzeta eta aniztasuna aintzat har dadin bultzatuta.
- 3.** Gizartearen eraldaketa bultzatzea, eta, horretarako, kulturarteko bizikidetzeta-espazioak sustatzea esperientzia komunitarioen bidez (tokiko harrera-taldeak/abegi-komunitatea).



06

Harreran eta laguntza komunitarioan esku hartzeko prozesua eta metodologia

06

Harreran eta laguntza komunitarioan esku hartzeko prozesua eta metodologia

6.1. Lehenengo fasea: harrera

Talde profesionalaren, mugitu diren pertsonen eta familien eta harrera-komunitatearen arteko elkarrekintza da abegi-eredu horren oinarria, 1. grafikoan ikus daitekeen bezala. Horrek esan nahi du esku hartzeko prozesu eta metodologia egokia bermatuko duela talde profesionalak, ezarritako helburuak betetzeko beharrezkoa den elkarreragina sortu ahal izateko.

Lankidetzan oinarritutako laguntza-harremana ezartzeko, estrategia, teknika edo trebetasun profesional batzuk hartzen dira kontuan, lankidetzaren eta laguntzarako testuinguru egokia eraikitzeke, eta honako etapa edo fase hauek biltzen dituen prozedura egituratzen dute: pertsona edo familia hartzea, haren eskaera entzun eta elkarrekin aztertzea, arazoak eta zailtasunak eta konponbideak ulertzea, pertsonarekin edo familiarekin adostea zein esku-hartze testuingurutan lan egingo dugun, helburuak elkarrekin zehaztea eta prozesua amaitzea.

Atariko zenbait kontu

Pertsona kaltetuak hartzera deituak gaude, prozesuetan lagundu eta haiekin batera ibiltzeko gure harrera komunitarioaren ereduaren zentzua eta misioa pertsona kaltetuen profilei arreta ematea, pertsona horiek beren harreman-gaitasunak aktibatzeke ahalmena baldin badute eta prozesu bati ekiteko prest badaude, bai da. Hala ere, jakin behar dugu zein diren gure mugak eta aukerak, eta jakin behar dugu egoera batzuei ezin diegula erantzun, gure baliabideak ez baitaude haiei erantzuteke pentsatuta eta prestatuta.

Bizitegia eskaintze hutsetik haratago doa gure harreraren ikuspegia, harrera egin eta laguntzen duen bizikidetzakomunitatean eta harrera indartzen eta laguntzen duen harreman-sarean oinarritzen da gure eredu.

Helburua herritartasuna bete-betean gauzatzeko lan egitea da. Funtsezko proiektua berreraikitzen lan egitea da

kontua, eta, horretarako, prozesuetan bidaide gara eta eurekin batera ibiltzen gara etorkizunak eraikitzen.

Bi harrera-modu ditugu, eta bakoitzak bere ñabardurak ditu. Alde batetik, "ate irekia" modalitatea dago. Modalitate horretan, pertsonak zuzenean jotzen dute gure erakundeetara. Kontaktua "ate irekiaren" bidez egiten denean, pertsonari lehen elkarrizketa egiten dio erakundeko gizarte-laneko profesionalak, egoera baloratzeko. Horrek esan nahi du egotea eta entzutea; harrera-gune beroa ematea, nahiz eta erantzun zehatzik ez egon. Bestalde, badira deribazio bidez hartzen ditugun pertsonak edo familiak. Modalitate horretan, aldeztatik beste erakunde batzuegandik balorazioa eginda heltzen dira gurera.

Nolanahi ere, gure ustez, hasierako harrera mota hori artisau lana da, harrera malguagoa baita iristen diren pertsona eta familientzat. Hasieran, espazio partekatuetan parte hartzea proposatzen zaie. Espazio komunitarioetan parte hartzea proposatzen zaie, parte

hartzeko trebetasunik baduten eta bizikidetzarako espazio bat izan dezaketenez zehazteko. Prozesuaren lehen etapa horretan, garrantzitsua da, halaber, identifikatzea hartutako pertsonak eta komunitate harreragileak zer gaitasun eta oztopo dituzten elkarrekin lotzeko, hartara, porrotak edo zentzurik gabeko prozesuak saihesteko.

Familia-unitatearekin edo banaka egindako hasierako elkarrizketa hori funtsezko tresna da, haien beharrak ezagutzeko eta ebaluatzeko eta baliabideak haiei erantzun diezaiekeen zehazteko. Gure ustez, garrantzitsua da haien errealitateak gure proiektuen edo baliabideen erantzuteko gaitasunera egokitzea, itxaropen faltsurik eta frustraziorik ez sortzeko.

Eskaera ulertzea

Eskaera entzun eta kokatzeari dagokionez, arreta berezia jartzen dugu pertsonen bizi-proiektuaren inguruko bereizketan, haien migrazio-proiektuan, haien ametsak eta etorkizuna eraikitzeko itxaropenak ulertzen.

Garrantzitsua iruditzen zaigu aintzat hartzea pertsonak edo familiak laguntza eskatzeko eta bere gaitasunak, indarguneak eta mugak baliozkotzeko abian jarri behar izan dituen ahaleginak. Esku-hartzearen fase honetan denbora hartu behar dugu pertsonaren migrazio-proiektua ulertzeko eta bereizteko, eta ez da erantzunik eman behar pertsonaren migrazio-prozesua ondo ulertu eta kokatu arte: jardun aurretik ulertu. Horretarako, honako hauek egin behar dira:

- Prest egon arreta emateko, eskaria jasotzeko interesa eta motibazioa izan (entzute aktiboa), eta, gure entzute horretatik, aintzat hartu beste pertsonaren balioa, haren bizi-ibilbidea eta aurrera egiteko egindako ahaleginak.
- Prest egon gertaerek pertsonarentzat edo familiako kideentzat duten esanahia (sentimenduak, emozioak, balioak) ulertzeko eta haietara hurbiltzeko. Horrela prestatuko gara modu aktiboan erantzuteko eta haien kontakizunen azpian dauden gertakarien eta emozioen bizipen subjektiboa ulertu nahi izateko.
- Zertan akonpainatzea eta laguntzea nahi duten eta laguntza hori nolakoa izatea pentsatu duten argi eduki eta ulertzea, harremanean poliki joatea, konfiantza sortzeko eta beldurrak txikitzeko. Horretarako, gure iritzia eman gabe entzutea planteatzen dugu, norberaren ideiak inposatu gabe; isilik entzun behar diegu.
- Pertsonekin edo familiekin elkarlanean eraiki, haien motibazioak ulertzeko eta argitzeko, eta harreman errealista ezarri aurkeztutako eskariaren eta gure baliabideen erantzuteko gaitasunaren artean.
- Epe ertain eta luzean finkatu horizontea. Oso litekeena da une horretan pertsonak edo familiek urgentziazko edo hurbileko

itxaropenekin lotutako kontuak azaltzea. Ezinbestekoa da konfiantzazko harremanak sortzea, bizi-proiektuarekin zerikusia duten kontu inplizituak azaltzen laguntzeko.

- Deribazioa bada, sistema deribatzailearen eta pertsonaren edo familiaren arteko harremana ebaluatu, eta deribatzaileek kasuan zer-nolako inplikazioa duten baloratu, bai eta prozesuan laguntzeko prest dauden ere. Pertsonarekin edo familiarekin partekatu sistema deribatzaileari buruz daukagun informazioa, harreman argia eta elkarrekiko konfiantzazkoa ezartzeko hasieratik.

Horretarako, funtsezkoa da erreferentziazko talde profesionalaren zeregina. Pertsona hori izango da solaskide nagusia pertsonentzat edo familientzat, hura baita prozesuan laguntzeko figura nagusia. Gainera, lotura du harrera-komunitatearekin, laguntza emanez, komunitate hori dinamizatuz eta bidaide izanez. Hala, bi esparruen arteko lotura, zubi edo bitartekari bihurtuko da.

Gainera, sareko lana sustatuko du esku hartzeko ekosistemaren parte diren beste eragile batzuekin.

6.2. Bigarren fasea: **balorazioa eta orientazioa**

Balorazio eta orientazio egokiak egin ahal izateko, aldez aurreko urratsa da egoera ulertzea, zailtasunak eta indarguneak hautemateko eta, hortik abiatuta, alternatibak formulatzeko. Balorazio hori taldean egiten da: bilerak, bai arreta emandako pertsoneri eta familiei begira, bai talde bakoitzaren funtzionamenduari begira. Hala, balorazioa partekatua eta kontrastatua izango da, eta zeharkako eta kide anitzeko ikuspegia sortuko da.

Horrenbestez, harreman-elkarrizketa ezarriko dugu pertsonaren edo familiaren, talde profesionalaren eta harrera-komunitatearen artean. Elkarrizketa horretan parte-hartzaile guztiek ulertu behar dute zer egoera gertatzen ari den eta egoera horrek zer eragin duen pertsona edo familia horrentzat eta bere inguruarentzat, balorazio diagnostikoa egin ahal izateko.

Balorazio horretan zehazten da baliabideak edo proiektuak erantzun diezaiokeen errealitate horri. Irizpide erabakigarrietako bat izango da esku hartzen den pertsonaren edo familiaren gaitasun komunitarioa. Funtsezkoa da erabaki hori hartzea, aukera ematen

baitu zehazteko prozesuan laguntzeko aukerarik dagoen edo hobe den deribatzea.

Balorazioa egitean ikusi bada zentzua eta koherentzia duela gure proiektuan edo baliabidean laguntzeak, baloratu diren beharrei erantzuteko moduko ibilbide zehatza diseinatuko da, eta esku hartzeko proposamena egingo da.

Balorazio diagnostiko horretatik abiatuta, esku-hartzeak zenbat iraungo duen zehaztu eta ezarriko da, eta, ondoren, ibilbide-mota diseinatuko da, egoera bakoitzari egokitua betiere. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da prozesu sistematiko eta ordenatua ezartzea balorazio diagnostikoa egiteko, aurreko fasean egindako artisau harrera osatzeko, antolatzeko eta estaltzeko.

6.3. Hirugarren fasea: esku hartzeko proposamena

Balorazioa egin eta diagnostiko soziala zehaztu ondoren, betiere ulertuta irekia eta dinamikoa dela diagnostiko hori, hirugarren fase honetan helburuak zehazteko eta pertsonen eta familien, talde profesionalaren eta eremu komunitarioaren artean lankidetzakordioa eraikitzeko prozesua eratuko da.

Horretarako, gure esku-hartze ereduak kontuan hartzen du Banako Arreta-Planetan (BAP) ondoko estrategia profesional hauek sartzeari, aldaketarako helburuak ezartzeko:

1. Beharrezkoa da identifikatzea zer arlotan esku har daitezkeen pertsonarekin edo familiarekin (arlotan pertsonal-familiar-komunitarioa, bizileku-arlotan, osasun-arlotan, arlotan okupazionala, ekonomikoa eta judizial-administratiboa), eta helburu posibleak zehaztea, kontuan hartuta zer baliabide dauden eskura, sareak eta aliantzak aktibatze gaitasuna, eta pertsonaren edo familiaren bizi-unea.
2. Helburu lorgarriak eta ulergarriak definitu behar dira, ekintza txikietan zehaztuak, termino positiboetan formulatuak eta denbora jakin batean

ebalua daitezkeenak, banakako ibilbideen diseinutik abiatuta.

3. Esku hartzeko planean, helburuak lortzeko erantzunkizuna eta eskumena pertsonari edo familiari eta harrera-komunitateari ere ematea (erantzunkidetasuna).
4. Akordioa (esku hartzeko plana) definitzea eta modu malguan denboralizatzea, prozesuan zehar helburuak birbideratzeko aukera izateko. Kontuan hartuta lankidetzak, konfiantza- eta itxaropen-harremanean oinarrituta daudela akordioak.

6.4. Laugarren fasea: esku hartzeko prozesua

Esku hartzeko prozesua banakakoa da, pertsona bakoitzaren gorabeherak hartu behar ditu kontuan, eta esku-hartzea pertsonalizatzeko aukera eman behar du. Prozesu horren ardatza bidean laguntzea da, eta aldaketarako elkarrekiko lan-konpromisoa eraikitzea du oinarri. Horregatik, funtsezkoa da azpimarratzea prozesua bera oso garrantzitsua dela pertsonaren bizi-proiektuaren horizontean elkarrekin hartutako konpromisoak gertatzen diren denbora-une gisa.

Esku-hartze prozesuan, harreran eta laguntza profesionalean oinarrituta, leku garrantzitsua betetzen du harrera-komunitatearen eginkizunak ere, zeharka jardunez pertsonaren edo familiaren ibilbide osoan, laguntza-lotura edo -aliantza eraikiz eta mantenduz.

Ereduaren arrakastaren oinarria da pertsonak bakean bizitzeko esperientzia izatea; hau da, elkarbizitzarako gune segurua izatea, eskubideak lortzera bideratutako inklusio-ibilbidea egin ahal izateko. Nolanahi ere, prozesuaren araberakoa izango da beti arrakasta, ulertuta arrakasta eta porrota

desberdinak izan daitezkeela pertsona eta egoera bakoitzean, eta BAPean ezarritako helburuei lotuta daudela.

Prozesuen ebaluazioari heltzeak interpelatu egiten gaitu eta erronka bat planteatzen digu: arrakastaren kontzeptua dimentsionatzea. Horrek helburuak birdimentsionatzea ere esan nahi du, eta esku hartzeko proposamenari zentzua eta aukera ematea. Ebaluatu aurretik eta ebaluazio jarraituaren prozesuan zehar ere, honako galdera hau egin behar dugu: ba al du zentzurik gure proposamenak? Eta esku-hartzea birbideratzea ahalbidetuko duten erantzunak aurkitu.


6.5. Bosgarren fasea: ebaluazioa eta prozesua ixtea

Gure begirada eta horizontea inklusiora eta komunitatean parte hartzera bideratua dago. Horregatik, aldian behin ebaluatu egin behar da esku hartzeko proposamena, prozesuaren hainbat unetan kontuan hartuta ekintzen, proposamenen, adostutako esku-hartzeen eta pertsonaren edo familiaren egungo egoeran aurkeztutako hobekuntzen artean ezartzen diren erlazioak.

Ebaluazio-prozesuan, arreta jartzen dugu prozesuaren gogobetetze-maila, indarguneak eta ahuleziak zein diren jakiteko, bai eta gure jardunean erabilgarrien izan dituzten alderdiak ere, bai pertsonen edo familien ikuspegitik, bai harrera-komunitateen ikuspegitik. Hau da, axola zaigu jakitea zer balorazio eta ikuspegi duten gure esku-hartzeari begira.

Adostutako esku-hartze planaren ebaluazioan, pertsonaren edo familiaren autonomia-maila handitu den ere baloratzen dugu. Gainera, garrantzitsua da ebaluatzea ea harreman eta lotura egonkorren sarea sortu ahal izan den, esku-hartzearen hiru alderdi nagusi bultzatzeko:

bizi-kalitatearekin lotutako autonomia pertsonala, eskubideak eskuratzea eta errotzea, parte-hartze komunitariotik eta harreman-saretik ulertuta.



07

Harrera-
komunitatea, abegi
onaren ardatz

07

Harrera-komunitatea, abegi onaren ardatz

Abegi egiteko eredu hiru eragileren arteko elkarreraginean oinarritzen da: talde profesionala, pertsonak eta familiak eta harrera-komunitatea. Hori da aztertutako erakundeek ibilbide gisa proposatzen duten berezitasuna beren jatorrizko lekuetatik urrun bizi-ibilbide berria egin behar duten pertsonentzat eta familientzat, 1 grafikoa ikus daitekeen bezala.

Komunitatea da proposamenaren ardatz egituratzailea, eredu osoa uste sendo batetik abiatzen baita: bakarrik ezin dugu familia bat edo pertsona bat hartu, eta ezin dira bete herritartasun osoa lortzeko edo bizi-proiektua berreraikitzeko helburuak. Eredu horren arabera, esku-hartze teknikoak edo profesionalak, berez, ezin ditu helburuak lortu, baldin eta esku-hartze komunitarioaren bidez, hau da, komunitate harreragilearen bidez, laguntzen edo osatzen ez bada.

Ikuspegi horretatik, harrera komunitarioaren ereduaren helburua da harrerako eta abegi oneko komunitatea

eraikitzea eta finkatzea, esku hartzeko eta pertsoneri laguntzeko prozesuetan parte hartuko duena. Parte-hartze horrek pertsona edo familia bakoitzaren beharrei lotutako hainbat arlo edo dimentsio bultza ditzake. Harrera-komunitateetan egituratzen dira eta SJMren egoitza- eta bizikidetza-baliabideetan dauden pertsoneri eta familiei laguntzen diete.

Azken batean, talde- eta komunitate-ikuspegia izan behar du banakako eta familiako esku-hartze prozesu orok. Pertsonen bizi-proiektua bereizteko, prozesu horietan parte hartzen duten eta, aldi berean, pertsonen parte-hartzea sustatzen duten taldeak eta komunitateak behar dira. Taldeak eta komunitateak eguneroko espazio informal gisa eratzen dira eta gai dira loturak eta laguntza-harremanak sortzeko, pertsoneri eta familiei garapen pertsonalerako eta gizarteratzeko aukera handiagoak eta hobeak emanez.

Era berean, komunitatea sortzen duten espazioak sustatzen dira, kontuan

hartuta lagundutako pertsonak herritartasun osoa duela, eta gizarte-sarean parte hartzeko eta integratzeko aukera emanez (Llobet, 2004).. Gizarteratzea, gizarteak pertsonen esku jartzen dituen eragileen bitartez, bultzatzen da.

Komunitateak eguneroko bizitzan bidea egiten laguntzen du eta laguntza-harremanak sortzen ditu, iritsi berriei laguntzen dien gizarte zibila hazteko aukera emanez. Hala, lotura informalak sendotzen dira, sarea sortzen da eta aukera gehiago ematen zaizkie pertsonari.

Ikuspegi horren barruan, laguntzaile eta baliabideen bideratzaile gisa jokatzeko du profesionalak, komunitaterako aditu eta aholkulari gisa baino gehiago. Dinamizatzaile lana ere egiten du dinamika komunitario berriak piztu eta suspertu behar diren espazioetan. Hala, komunitatea partaide aktibo bihurtzen da bere garapenaren prozesuan (Zimmerman, 2000). Egoera horretan, profesionalak kolaboratzaile gisa aritzen dira, eta, besteak beste, komunitateen esperientzietatik ikasten dute, pertsonen arteko elkarguneak sortzen laguntzen

dute, pertsonak gaitzen laguntzen dute beren irtenbideak aurki ditzaten eta esperientzia horiek zabaltzen dituzte (Rappaport, 1981). Hala, bada, honela irakur daiteke harrera komunitarioaren prozesuaren barruan profesionalak duen zeregina: "pertsonaren eta ingurunearen arteko erlazio-aldaketaren eragilea" (Rio Campos, 2020).

Teknikariaren/profesionalaren zeregina da komunitate horren buru izatea eta dinamizatzea, komunitate-estilo propioa sustatzea, jarduteko modu propioa, ospatzea eta partekatzea ere bada komunitatea, argia izan behar du. "Bizitzan bidaide", horixe da komunitatea. Bizitzak diren heinean, beren prozesuan ere lagundu behar zaie. Profesionalaren funtsezko zeregina komunitateari teknikoki ere laguntzea da. Une zailetan ilusioa mantentzea, erresilientzia sortzea, pizgarriak eta alternatibak bilatzea. Komunitatea ere subjektu akonpainatua izatea.

Nabarmentzekoa da, halaber, erreferente bihurtzen diren boluntarioak hautematearen garrantzia. Batzuetan, lagundu zaien pertsonak berak erreferente bihurtzen dira

beste pertsona batzuentzat, eta bi aldeak aberasten dituen prozesua berrabiarazten da.

Talde tekniko gisa, komunitatearen idiosinkrasia errespetatu behar dugu, haren kodeak, denborak, behar espezifikoak eta harrera egiteko eta ulertzeko moduak ezagutu behar ditugu. Talde teknikoaren lana da eremu komunitarioa eraikitzeko eta dinamizatzeko lan egitea. Komunitate batzuk lehendik daude eta elkarrizketa behar dute. Beste batzuk, berriz, laguntza teknikoaren bidez eraiki, bultzatu eta dinamizatu behar dira. Horretarako, funtsezkoa da talde teknikoarekin elkarreragina izatea.

Komunitate bidelagunak harreman-espazio segurua izan behar du, non doakotasuna eta dimentsio ludikoa, sinbolikoa eta ospakizunekoa espazio komunitario horren parte diren, eta bertan ezagutzen dira pertsonen kontakizunak komunitate-loturen bidez.

Komunitatea, beraz, harreman-sistema bizia da, pertsonak batze hutsetik haratago doan misio komuna duena. Komunitate bakoitzak kontakizun

positibo bakarra eraikitzen du, eta auzoan kohesioa eta eragina sortzen ditu laguntzatik bertatik. Hala, komunitate bakoitzak, bere berezitasunetik, bere errealitatera egokitzen du prozesua.

Azkenik, babes-sarea da komunitatea, hau da, gizarte-laguntzako sareen bidez egituratutako testuingurua. Sare horiek zaintzarako eta egitura dialogikoetarako espazioa eraikitzen dute, honako ezaugarri hauek dituen:

- Konfiantzazko giro eroso eta segurua sortzea.
- Berdintasuna eta parte-hartze horizontala.
- Ikuspuntuen aniztasuna.
- Ikuspegi partekatua eraikitzea.
- Gertatzen denaren eta emaitzen erantzunkidetasuna.
- Elkartzeko, elkarbizitzarako eta elkartrukerako espazio komunak eraikitzea.

Hori guztia printzipio eta balio partekatuen esparruan, harmonia izateko eta bermatzeko askotariko

pertsonen artean, jendearen eta ingurunearen artean, eta pertsona bakoitzak bere buruarekin. Alde batetik, inguruak baldintzatu egiten ditu pertsonak, ez mugatu, baina aldi berean, inguruan eragiteko eta eraldatzen laguntzeko gaitasuna dute pertsonak (Navarro, 2011). Bestalde, mehatxuez eta zailtasunez gain, aukera-iturri agortezina izan daiteke pertsonen bizi-ingurunea.

Aniztasuna ekitatearen ikuspegitik kudeatzea oso garrantzitsua da komunitatea eraikitzeko. Kontua da pertsona desberdinen arteko lotura lantzea, berdinen artean lidergo komunitarioak ezartzea, proiektuan parte hartzen duten pertsonak beste batzuentzat erreferente izan daitezen bultzatuz.

Eredu honetan esku hartzeko prozesua ez da ulertzen kontuan hartu gabe aktiboki parte hartzen duen eta laguntza-loturak eratzen dituen harrera-komunitatearen presentzia. Horren harira, prozesuaren fase bakoitzak ondoko gai eta berezitasun hauek ditu, komunitatearen beraren ikuspegitik.

7.1. Lehenengo fasea: harrera

Atariko zenbait kontu

Komunitate bakoitzak bere berezitasunetik eraikitzen du harrera-prozesua. Ez dago beste baten berdina den komunitaterik, bakoitzak bere ezaugarrien arabera marrazten ditu prozesuak, eta bidelagun dituen eragileekin batera eraikitzen ditu prozesu horiek.

Esku-hartze prozesuan komunitateak duen rola ulertzeko, lehenik eta behin, komunitatearen tipologia bereizi behar da, haren jatorriaren arabera. Alde batetik, "zain dagoen komunitatea" dugu, alde aurretik eratua; eta, bestetik, "sortu den komunitatea", erakundeetako profesionalen lanek abiapuntu izanik eratzen direnak.

"Zain dagoen komunitatea" alde aurretik eratutako erlijio-komunitateek edo bizi-komunitateek osatzen dute, eta harreman egonkorra du erakundearekin. Beraz, etengabe daude eta beti daude eskuragarri. Batzuetan, komunitate horiek ad hoc eratzen dira, pertsona eta talde jakin batzuen zain egoteko.

"Sortu den komunitatea" pertsona edo familia boluntarioek osatzen dute. Pertsona edo familia horiek erakundera hurbiltzen dira, erakundeko talde profesionalaren erakartzeko eta sensibilizatzeko lanaren ondorioz.

Bereizketa horren ondorioz, harrera egiten den unean desberdina izan daiteke parte hartzea ere, batez ere hasierako fasean. "Zain dagoen komunitatea" hasiera-hasieratik dago bertan, eta erakunde- eta antolamendu-arloa gainditzeko duten harremanak ere eskaini ditzake. "Sortu den komunitatea" ez dago oraindik lehen une horretan.

Beraz, familiak hartzen eta familiei laguntzen dien espazio gisa ere hartu behar da harrera komunitarioa. Bertan harreman bat sortzen hasten da talde profesionalarekiko harremanean oinarrituko den prozesurako sarrera gisa.

Eskaera ulertzea

Komunitateak, beraz, funtsezko funtzioa du pertsoneri harrera egiteko prozesuaren garapenean. Funtzio hori ondoko puntu hauetan laburbil daiteke eskaeraren ulermena definitzerakoan::

- 1.** Pertsonak edo familiak iristen diren unetik dago harrera egiten duen komunitatea. Kasu batzuetan, gainera, premia-egoerak identifikatzen laguntzen du, eta "deribazio-agentearen" lana betetzen du.
- 2.** Komunitateak bestea aintzat hartzen du eta lurraldean kokatzen du. Komunitateak elkarrekin ibiltzera gonbidatzen ditu pertsonak. Nahi al duzu? Hartuko al duzu parte?
- 3.** Pribatutasuna eta pazientzia eskaintzen ditu komunitateak. Errespetua eta isiltasuna. Segurtasun-eremua.
- 4.** Komunitateak, hasieran, behatzaile gisa jokatzeko du, ez da oso protagonista, bere erabakia ez da loteslea. Prozesua erantzunkidetasunean oinarritzen bada ere, lidergoa figura

profesionalean kokatzen da. Hura da orkestrako zuzendaria. Talde profesionalak protagonismo handiagoa du bitartekaritza-rollean. Komunitateari prozesuan integratzen laguntzen dio, prestakuntzaren eta aldizkako bileren bidez.

- 5.** Hala, komunitateak ere badu bere prestakuntza-prozesua: bere garapenean laguntzen zaio.

7.2. Bigarren fasea: **balorazioa eta orientazioa**

Balorazio- eta orientazio-fasean, inplizitua dena esplizituki azaltzeko aukera ematen du komunitateak. Ñabardurak eta informazio aberasgarriak ematen dizkio talde profesionalak egindako balorazioari, batez ere eguneroko bizitzetan agerian jartzen diren pertsonen eta familien gaitasunei dagokienez, harremanen esparruan bereziki.

Pertsonen eta familien egoerari buruzko informazio-iturria da komunitatea, eta, aldi berean, laguntzen du pertsona eta familia horiei bizi-proiektuei buruz teknikariek emandako mezuak indartzen. Bestela esanda, balorazioa doitzeko eta birbideratzeko aukera ematen duten elementuak eta ñabardurak ematen ditu.

7.3. Hirugarren fasea: **esku hartzeko proposamena**

Komunitateak proposamen zehatzak egiten ditu, beharrak identifikatzen laguntzen du edo esku hartzeko planean txerta daitezkeen beste bide batzuk irekitzen ditu. Talde profesionala osatzen du eta kontraste- eta berregokitze-elkarrizketa izateko aukera ematen du.

Banakako Arreta-Planari (BAP) dagokionez, komunitatearekin partekatzen da, konfidentzialtasun- eta errespetu-printzipioak kontuan hartuta. Komunitateak konfiantza du talde teknikoak markatutako BAPean, baina sareak eskaintzen dituen aukerak identifikatzeko gaitasuna ere badu. Hala, esku hartzeko plana osatu, aberastu edo birbideratzen lagun dezake komunitateak.

7.4. Laugarren fasea: **esku hartzeko prozesua**

Fase honetan protagonismo garrantzitsua hartzen du komunitateak, betiere talde profesionalaren lidergoarekin batera. Lotura komunitarioa funtsezkoa da fase honetan. Lotura hori sortzen lagunduko duten aitzakiak eta jarduera zehatzak bilatuz lantzen da komunitatearen eta pertsonen edo familien arteko lotura. Jarduerak ez dira berez helburua, topaguneak eta harremanak bultzatzeko bitartekoak baizik. Jarduerak ospakizunaren inguruan sortzen dira askotan, bizitza partekatze metodo gisa, eta metodologiaren funtsezko tresna bihurtzen dira.

Komunitatea finkatua dagoen neurrian, talde teknikoak pisua galdu behar du, eta bere presentzia lausotu. Talde teknikoak "jokoa banatu" behar du, eta komunitateari eman lotura sortzearen pisua.


Konfiantza da loturak sortzeko funtsezko elementua. Konfiantza lantzeko, funtsezkoa da denbora eskaintzea, erantzunak ematea, gardenak izatea, eskuragarri egotea, bide berriak irekitzea. Laburbilduz, komunitateak gero eta erantzukizun handiagoa har dezan sustatu behar da, horretarako beharrezkoak diren espazioak sortuz.

7.5. Bosgarren fasea: **ebaluazioa eta prozesua ixtea**

Garrantzitsua da ebaluazioa eta prozesua ixtea bereiztea. Prozesuen itxierak sistematizatuago dauden arren, oraindik gainditu gabeko ikasgaia da ebaluazioa. Nolanahi ere, argi dago bai ebaluazioak bai ixteak prozesuan parte hartzen duten eragile guztiekin egin behar direla: pertsonak eta familiak, komunitateak eta lantalde teknikoak.

Horretarako irizpide bakarra ez dagoen arren, lotura lortzearekin eta zenbait harreman mantentzearekin lotuta egon ohi dira prozesuen itxierak, bai eta eskubideak eskuratzearekin ere. Itxiera positibo bada, normalean ospakizun-gune batekin lotzen da beti, non protagonismo komunitarioa funtsezkoa den.

Ebaluazioa garrantzitsutzat jotzen da, bai mikro mailan, bai meso eta makro mailetan. Horren harira, ebaluazio-irizpide argiak ezartzearen garrantzia nabarmentzen da, bai eta eragile guztiak hasieratik prozesu horretan inplikatzeko ere.



08

Sareko lana **harrera**
komunitariorako

08

Sareko lana harrera komunitarioako

Jesusen Lagundiaren erakundeetan dagoen sareko lan-ereduak funtsezko bi helburu bereizten ditu bere inplementazioari dagokionez. Alde batetik, sarean lan egiten da erakunde espezializatu batekin edo gehiagorekin (adibidez, gizarte-sektoreko erakundeekin). Bestetik, sarean lan egiten da sektoreen artean, eta eragile bakoitzak zerbait desberdina ematen du bere eginkizunetik (adibidez, hirugarren sektoreko erakundeak, ikastetxeak, unibertsitateak...).

Sarean lan egiteko proposatzen den esku-hartze ereduak erdigunean jartzen du pertsona, bere prozesuaren protagonista gisa, eta komunitate-sareak eta herritarren elkartasuneko sareak antolatzen ditu, ingurune baliabideekin batera, ibilbide holistikoa eta individualizatuak garatzeko (SJM Eredua, 2021). Horrela, erakundetik eta pertsonarekin ehun behar den harreman-nahaste gisa eratzten da sareko lana, inguruan identifika daitezkeen eragile aliatuen bitartez.

Harreman horiek erakundetik, komunitatetik edo inguruan bertan landu daitezkeen aliantzetatik etor daitezke, baina funtsezkoak dira bidean ezar daitezkeen laguntzarako.

2. grafikoan ikus daitezkeen bezala, lehen mailako eredu nuklearra osatzen du sareak. Sare horrek baliabideen laguntza, testuingurua ezagutzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko aukera ematen ditu; izan ere, horiek ezinbesteko elementuak dira talde profesionalak, komunitateak eta pertsonak berak osatutako "triangelu bertutetsua" indartzeko, pertsona hori baita bere prozesuaren azken protagonista.

Helburua sarean lan egitea da. Ez da gauza bera bakarka lan egitea eta ikuspegi komunitarioarekin lan egitea, hurbileneko lurraldea osatzen duten baliabide teknikoak eta herritarrak kontuan hartuz eta barneratuz. Hori horrela da, neurri batean, esku hartzeko modu horrek aukera ematen duelako aurrera egiteko gizarte

kohesionatuagoa, hobeto koordinatua eta erronka kolektiboari aurre egiteko prestatuagoa izateko bidean. Gainera, antolaketa komunitarioa sortzen du, egitura gutxi-asko formalak eratuz, harrera-prozesua amaitu ondoren ere irauten dutenak. Agente komunitarioen arteko harremanak "koipeztatuak" egoteak eta harreman-espazio zainduak eta arautuak izateak erraztu egiten du esku hartzea, eta izugarri handitzen du egiten dugun esku-hartze hori.

Nolanahi ere, sareko lanaz hitz egiten denean, garrantzitsua da zenbait gogoeta garrantzitsu kontuan hartzea.

1. Bereizi egin behar dira beste gizarte-erakunde batzuekin (Jesusen Lagundikoak izan ala ez) egiten den sare-lana eta izaera informalgoko tokiko eragileekin egiten dena. Oso desberdinak dira erakunde bakoitzaren izaera eta haiek osatzen dituzten pertsonak, bai eta haietako bakoitzaren helburuak ere, eta maila desberdinetan daude. Hortik aurrera desberdina da, halaber, erakunde bakoitzaren lan egiteko eta eraikitzeke modua.


2. Garrantzitsua da sistema publikoekin egiten den lana ere bereiztea. Osasun-sistema, enplegu-sistema, udal-ekipamenduak edo beste eragile publiko batzuk, eta, jakina, gizarte-zerbitzuen sistema bera, sarean lan egiteko erabiltzen diren eragileen parte dira. Baina, kasu honetan, garrantzitsua da bereiztea lan hori nondik egiten den eta zer jarrera dugun horri dagokionez.

3. Kontuan hartu beharreko hirugarren gaia da nola eraikitzen den aurreko puntuetan aipatu den sare hori eta nork duen lidergoa. Sareak eraikitzean protagonismo handiena talde profesionalari dagokiola pentsatzeko tentazioa izan dezakegun arren, sarri askotan komunitateak berak edo pertsonak berak laguntzen dute sareko lan-dinamika horiek sortzen. Ereduaren oinarri den etengabeko elkarrekintzaren gakoak ere badu bere isla sarea eraikitzerakoan, logika horretatik berrelikatzen baita.

Sareko lana behar bat da, baina, batez ere, erabaki politikoa eta teknikoa da.

Beharrezkoa da, harrera-komunitateak ez liratekeelako gai izango beren eginkizuna aurrera eramateko lurraldeko beste eragile batzuk kontuan hartu gabe. Harrera-komunitate bakar batek ezin ditu bideratu familien beharrei erantzun ahal izateko aktibatu behar diren zeregin guztiak. Baina, horrez gain, erabaki politiko eta tekniko da; izan ere, harrera-komunitatea premia guztiei erantzuteko gai izango balitz ere, mugatuak izango lirateke kasu horretan ingurunean sortuko litzatekeen eragina eta familiak lurraldean duen sustraitze-maila.

Azken batean, ekosistema baten parte da dokumentu honetan planteatzen den harrera komunitarioaren eredua, eta ekosistema horretan, sareko lana eta hainbat eragileren parte-hartzea ezinbestekoak dira pertsonari bere bizi-proiektua garatzen laguntzeko.



09

Hausnarketa
partekatua
**erakunde-
esparruari** buruz

09

Hausnarketa partekatua erakunde- esparruari buruz

Azken puntu honetan, eremu instituzional publikoarekiko harremanari buruzko hausnarketa egin nahi dugu dokumentu honetan. Gai hori ez da zuzenean landu prozesuan zehar, baina errealitate hori hainbat elkarrizketetan atera da, eta, zalantzarik gabe, baldintzatu egiten du hausnarketa horretan, eta, beraz, eraiki nahi den ereduaren parte hartzen duten erakundearen egunerokoak.

Subsidiariorotasuna, osagarritasuna eta gehigarritasuna dira harreman horrek ardatz dituen printzipioak, eta jasota daude SJMren esparru-dokumentuan (SJM eredu, 2021). Laburbilduz, ezartzen dute gizarte-ekintzako sistema publikoa iristen ez den tokian dagoela hausnarketa horren parte diren erakundearen ekintza, botere publikoekin elkarlanean beharrezkoa denean, irtenbide sortzaileak eta egiturazkoak eskainiz, baina bide horretan bikoiztasunak saihestuz betiere.

Baina hiru printzipio horietatik abiatuta, gure erakundearen egunerokoak

erakusten du errealitatea askoz ere konplexuagoa dela eta kontuan hartu beharreko hainbat aldagaitan oinarritzen direla erakundearen munduarekiko harremanak: lurralde bakoitzeko kultura politikoa, ezarri nahi dugun elkarrizketa eta, hirugarrenik, lankidetzarako tresnak.


- 1.** Lehenik eta behin, garrantzitsua da gure errealitate instituzionalaren aniztasuna nabarmentzea. Autonomia-erkidego bakoitzeko kultura politikoa, baita lurralde bakoitzekoak ere, zehazten du askotan erakunde baten jarduteko modua, une bakoitzean indarrean dagoen alderdi edo ideologiatik haratago. Horrenbestez, aniztasun horrek eta lurralde bakoitzeko kultura politiko desberdin horrek zehaztuko du gure erakundearen eta erakunde-sarearen arteko harreman-esparrua.
- 2.** Bigarrenik, erakunde bakoitzaren elkarrizketarako tresnek eta formek ere zehaztuko dute zer agertoki mota planteatzen den. Ez da gauza bera

lehen urratsa ematea elkarrizketa bat ezartzeko edo zain egotea administrazioa izan dadin hori egingo duena. Ez da gauza bera elkarrizketa tekniko arina izatea eta ez izatea. Elementu horiek zehaztu dezakete gero mota bateko edo besteko erabaki politikoak egotea, baina, batez ere, lankidetzaren harremanak ezartzen laguntzen dute.

- 3.** Hirugarrenik, lankidetzaren nola ezartzen den zehaztea. Bi estadio desberdin bereiz ditzakegu. Aktiboki parte hartzea erabakitzen den (ala ez). Lehen urratsa da, eta alde aurreko solaskidetzaren estutzeko aukera ematen du. Bigarren estadioa, alde aurreko erabakia baiezkota bada, zein tresnataki abiatuta egitea erabaki den. Hor sartzen dira finantzaketarekin lotutako hitzarmenak edo itunak edo programa edo ekintza-ildo desberdinak adosteko aukera. Atal horretan erabakitzen da lankidetzaren forma ematea, eta forma hori zehazki zein izango den erabakitzen da.

Alderdi horiek erabakigarriak dira gure ereduaren eraikitzeke. Ez dira sakon eztabaidatu txosten honetan, baina

aipatzea garrantzitsua iruditzen zaigu modu holistikoa ulertzeko zein den gure esparru instituzionalaren esparru orokorra.



10

Bibliografia

AGUILAR, M.J. (s.f) Comunidad y acción comunitaria. Curso de formación permanente en servicios sociales. Servicios Sociales de Cantabria. Hemen eskuragarri:
<https://www.serviciosocialescantabria.org/uploads/documentos/Comunidad%20y%20acci%C3%B3n%20comunitaria.pdf>

AGUILAR-MORALES, J.E. Y VARGAS-MENDOZA, J.E. (2010). Trabajo en equipo. *Network de Psicología Organizacional*. México: Asociación Oaxaqueña de Psicología A.C.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2023): Pertsonalizazioa 2030. Gipuzkoako Gizarte zerbitzuak pertsonalizatzeko adierazleen gida. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

FERRAN, A. (2016). Loiolaetxea: bazterkeriari eta gizarte-garapenari erantzuna elkartzunetik. *El papel de la iniciativa social en la atención a las personas en riesgo o situación de exclusión social en el marco de la política social gipuzkoana*. Doktore tesia. Deustuko Unibertsitatea.

FRANCISCO (2020) Fratelli Tutti gutun entziklikoa (2020ko urriaren 3an)..

LLOBET, M. (2004) El trabajo social Comunitario como una oportunidad y estrategia para poder repensar, transformar y construir la organización de la atención primaria en servicios sociales. *Servicios sociales y política social*, 66, 63-76

NAVARRO, S. (2011) De como Robinson Crusoe redescubrió a Viernes: reflexiones sobre la perspectiva relacional en la intervención hoy. Hemen eskuragarri:
https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/1153_Ponencia-Silvia-Navarro-Pedre%C3%B1o.pdf

RAPPAPORT, J. (1981). In praise of paradox: A social policy of empowerment over prevention. *American Journal of Community Psychology*, 9, 1-21.

POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO NAFARROAKO SAREA (2016): El acompañamiento como método de intervención en los procesos de inclusión. Nuevas reflexiones. Iruñea.

RÍO CAMPOS, P. (2020) Aportaciones de las teorías relacionales y feministas al Trabajo Social. *Cuadernos de Trabajo Social*, 33 (1), 43-52

SJM (2021): Marco para la reflexión sobre el modelo de Hospitalidad desde el SJM. Barne dokumentua.

ZIMMERMAN, M. (2000). Empowerment theory. En J. Rappaport & E. Seidman (Eds). *Handbook of community psychology* (pp. 43-63). New York, NY: Kluwer.

Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren (SJM) harrera komunitarioaren eredia elkarrekin eraikitzen



